

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektuari buruz jendeak erraz jakiteko, komunikatzeko hainbat bide erabiliko ditugu. Helburua da jendeak ulertzea nola funtzionatzen duen, nora eraman jostailuak eta non eros daitezkeen berriztutakoak.

- Sare sozialak (Instagram, TikTok, Facebook): Hemen jarriko ditugu argazkiak, berriak eta nola lan egiten dugun. Jende askorengana iristeko modu azkarra da, batez ere gurasoengana eta gazteengana.
- Gmail: Zalantzak badituzte, jendeak gmail bidez idatz diezaguke. Informazioa bidaltzeko ere erabiliko dugu, adibidez, berritasunak edo dendan dauden jostailu berriak
- Telefonoa: Teknologia gutxi erabiltzen duten pertsonentzat oso erabilgarria da. Horrela, gurekin zuzenean hitz egin dezakete.
- Informazioa denda fisikoan: Gure dendan jendeak zuzenean galdetu dezake.
- Juguettos dendak: Han egongo diren bilketa-kutxetan kartel sinpleak jarriko ditugu, jendeak berehala ulertzeko zer egin behar duen.

BANAKETA KANALAK

Jostailuak guregana eta gero bezeroengana iristeko modua oso sinplea izango da.

Nola heltzen dira jostailuak guregana?

- Juguettos-eko kutxak: Jendeak etxean soberan dituen jostailuak han uzten ditu.
- Gure taldeak jostailu horiek jaso eta gure dendara eramaten ditu, garbitu, konpondu eta sailkatzeko.

Nola heltzen dira jostailuak bezeroengana?

- Denda fisikoa: Gure dendan berriztutako jostailuak salgai egongo dira. Jendeak bertara joan eta erosi ditzake.
- Etorkizunean online salmenta: Proiektua handitzen bada, webgune txiki bat egingo dugu jostailuak internet bidez ere saltzeko. Pakete sinple batekin bidaliko ditugu.
- Baliteke Juguettosen txoko bat edukitzea etorkizunean, baina hasieran ez da beharrezkoa.